



ARANTZAKO UDALA

OSOKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Arrunta

Eguna: 2025.01.17

Ordua: 16:30

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- ALKATEA: Saturnino Larralde Ibarrola, EH Bildu.
- Itziar Arotzena Bergara, EH Bildu. *Gai ordenako 4. puntuan sartu da.*
- Ana Maeztu Villanueva, EH Bildu.
- Igor Ugalde Salazar, EH Bildu.
- Andoni Mitxelena Danboriena, EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

- Leire Mitxelena Gamio, EH Bildu.
- Julen Oskoz Elizondo, EH Bildu.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIAK:

1. Aurreko akten irakurketa (arrunta eta ez-ohikoa) eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. 2018ko eta 2021eko itxitako aurrekontuan likidatzeko zain dauden betebeharren preskripzio eta/edo indargabetze onespena.
3. Lorenzo Larretxea Goñik sustaturiko 5. poligonoko 941. lurzatiko xehetasun azterketari behin betiko onespena.
4. 2025eko egutegi fiskalaren onespena.
5. Jose Luis Iparraguirrek sustaturiko Erregenea etxebizitzako kanpoko eskailera egiteko obrak Arantzako Eraikuntzaren ordenantzaren 22. artikuluan ezarritakoa betetzen duen edo ez adostea.
6. Oronozko Lanbide Eskola proiektuaren atxikimendua, hala badagokio.
7. Aroztegiako auzipetuei elkartasuna adierazi eta absoluzioa eskatzeko mozioaren onespena.
8. Alkate Ebazpenak.
9. Eskakerak eta galderak.



ARANTZAKO UDALA

1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA.

2024ko azaroaren 8ko osoko bilkura arrunteko akta eta 2024ko azaroaren 22ko ezohiko osoko bilkurako akta AHO BATEZ ONETSI DIRA.

2. 2018KO ETA 2021EKO ITXITAKO AURREKONTUAN LIKIDATZEKO ZAIN DAUDEN BETEBEHARREN PRESKRIPZIO ETA/EDO INDARGABETZE ONESPENA.

Idazkariak 2024ko kontuetatik preskribatu beharreko kopuruaren zenbatekoa eta zergatia azaltzen ditu:

URTEA	PARTIDA	KONTZEPTUA	EGITATEA	KOPURUA
2018	1 3121 22100			48,67
2018	1 4540 61000	Balbiz aldeko bidearen zuzendairtza	2018002722	232,07
2021	1 0110 31004	Abeltzaintzako pisten mailegua	2021000675	112,56
2021	1 0110 91300	Abeltzaintzako pisten mailegua	2021000675	377,53
2021	1 1510 22700	Azaroko arratoi hiltzea	2021003315	221,34
2021	1 1611 21000	Kloroa	2021003323	360,15
2021	1 1640 22100	Kanposantua	2021000440	5,05
2021	1 1650 22100	Argiteria Osiña	2021000456	15,75
2021	1 3380 22105	10 bokata Bordalarreko auzonalerako	2021003325	50,00
2021	1 9200 22000	Fotokopiak	2021001445	472,78
2021	1 9200 22201	Abeltzaintzako pisten mailegua	2021000675	0,30
2021	1 9200 22201	Udaleko maiatzeko posta	2021003326	11,59
2021	1 9200 22760	Fakturaren zuzenketa	2021001956	20,00
2021	1 9310 22630	Transferentzien eta itzulketen gastuak	2021001639	4,62
			GUZTIRA	1.932,41

Horri dagokionez, 2024ko kontuetan preskribatu beharreko kopuruak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 16tik 20ra bitarteko artikuluetan xedaturikoa kontuan hartuta egin behar da. Halaber, preskripzio bidezko baliogabetze hauek Nafarroako Toki Administrazioarako kontabilitate sinplifikatuaren jarraibidea onartzen duen irailaren 21eko 273/1998 Foru Dekretuko 56 arauan xedaturikoaren arabera gauzatu beharra dira. Horretarako, osoko bilkuraren akordioa beharko litzateke, izan ere, preskripzio hauek 2025ko kontabilitateko hasierako saldoi eragingo lieke.

Osoko bilkurak bertaratutako kideek, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- 2024eko kontuetan 2018ko eta 2021eko itxitako aurrekontuetan likidatzeko zain dauden betebeharrak preskribatu eta/edo indargabetzea.



ARANTZAKO UDALA

3. LORENZO LARRETxea GOÑIK SUSTATURIKO 5. POLIGONOKO 941. LURZATIKO XEHETASUN AZTERKETARI BEHIN BETIKO ONESPENA.

Idazkariak azaldu du urriaren 30eko 178/2024 Alkate Ebazpen bidez hasierako onespena eman zitzaiola Lorenzo Larretxea Goñik 5. poligonoko 941. lurzatian sustaturiko xehetasun azterketari.

Horrela bada, hasierako onespeneren iragarkia 2024ko azaroaren 14ko 231. zk. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Jendaurreko epean alegaziorik aurkeztu ez denez, idazkariak azaldu du Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. eta 79.1. artikuluen arabera, behin betiko onespena eman daitekeela xehetasun azterketari ondotik Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Lorenzo Larretxea Goñik 5. poligonoko 941. lurzatian sustaturiko xehetasun azterketa behin betiko onestea.

2.- Behin betiko onespeneren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, dagokion xehetasun azterketarekin batera.

3.- Behin betiko onetsitako xehetasun azterketaren espedientea lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen departamentuari helaraztea.

4.- Akordio hau sustatzaileari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

****Itziar Arotzena Bergara zinegotzia bilkurara sartu da.***

4. 2025EKO EGUTEGI FISKALAREN ONESPENA.

Idazkariak azaldu du azken urte hauetan zenbait zerga eta tasen kobrantzak ez direla aurreikusitako epeetan egin. Horrela bada, borondatezko ordainketak epe zehatzetan egiteko, 2025 urtetik aitzin indarrean egonen den ondorengo egutegi fiskala proposatu du:

- Lurralde Kontribuzioa: abenduan.
- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zerga: ekainean.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga: abenduan.
- Ur hornidura, ur hornidura azpiegituren mantenimendua eta estolderia tasak: Lau zatitan banatuta ondorengo moduan:
 - 1. hiru hilekoa: maiatzean.
 - 2. hiru hilekoa: abuztuan.
 - 3. hiru hilekoa: azaroan.
 - 4. hiru hilekoa: hurrengo urteko otsailean.



ARANTZAKO UDALA

Osoko bilkurara bertaraturako kideek AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- 2025etik aitzin jarraian adierazitako zergen eta tasen borondatezko ordainketa egiteko ondorengo egutegi fiskala onartzea:

- Lurralde Kontribuzioa: abenduan.
- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zerga: ekainean.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga: abenduan.
- Ur hornidura, ur hornidura azpiegituren mantenimendua eta estolderia tasak: Lau zatitan banatuta ondorengo moduan:
 - 1. hiruhilekoa: maiatzean.
 - 2. hiruhilekoa: abuztuan.
 - 3. hiruhilekoa: azaroan.
 - 4. hiruhilekoa: hurrengo urteko otsailean.

2.- Egutegi fiskal hau Arantzako Udalaren webgunean argitaratzea, interesdun oro jakinaren gainean egon dadin.

5. JOSE LUIS IPARRAGUIRREK SUSTATURIKO ERREGENEA ETXEBIZITZAKO KANPOKO ESKAILERA EGITEKO OBRAK ARANTZAKO ERAIKUNTZAREN ORDENANTZAREN 22. ARTIKULUAN EZARRITAKOA BETETZEN DUEN EDO EZ ADOSTEA.

Andoni Mitxelena Danboriena zinegotziak Jose Luis Iparraguirrek sustaturiko obra baimen espedientea azaldu du. Horri dagokionez, sustatzaileak 5. poligonoko 830. lurzatian kokaturik dagoen Erregenea etxebizitzan kanpoko eskailera bat egin nahi du.

Udal arkitektoaren 2024ko abenduaren 11ko txostenean xedaturikoaren arabera, sustaturiko obra baimena ematearen aldekoa da. Halaber, bertze puntu batzuek gain, udalak proiektuak Arantzako Eraikuntzen Ordenantzaren 22. Artikuluan xedaturiko baldintzak betetzen dituen erabaki beharko duela dio.

Osoko bilkurara bertaraturako kideek AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Jose Luis Iparraguirrek sustaturiko Erregenea etxebizitzako kanpoko eskailera egiteko obrak Arantzako Eraikuntzaren Ordenantzaren 22. artikuluan ezarritako betetzen duela.

2.- Ebazpen hau sustatzaileari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

6. ORONOZKO LANBIDE ESKOLA PROIEKTUAREN ATXIKIMENDUA, HALA BADAGOKIO.

Osoko bilkurara bertaraturako kideek AHO BATEZ ERABAKI DUTE ondorengo adierazpena atxikitzea:

2014. urtean hasi zen Baztan Bidasoa eskualdean Lanbide Heziketa eskola berri bat egitearen beharra. Izan ere, eraikinak zaharkituak daude eta bestalde, hezkuntza eskaintza eskualdeko beharrei erantzuteko osatu beharra ikusten zen. Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza komisioak Elizondora bisita egin



ARANTZAKO UDALA

ondorengo mozioan aipatzen da (NAO 12, 2015-01-30) Elizondo Lanbide Eskolako eraikina egoera tamalgarrrian dagoela, honekin segurtasuna arriskuan jarritz.

Eskualdean aho batez onartutako proiektua 2017ko urriaren 4ean Bertizen Maria Solana eta Isabel Elizaldek Baztan-Bidasoako Lanbide Heziketarako Plan Estrategikoa aurkeztu zuten, bertan etorkizuneko hezkuntza eskaintza aurkeztuz.

2022ko uztailean Nafarroako Gobernuak proiektuaren erredakzioa lizitatu zuen. 2023ko otsailean, Oronozen, besteren artean Carlos Gimeno eta Tomas Rodriguezek proiektuaren nondik norakoak aurkeztu zituzten eta 2023ko abenduan Nafarroako Gobernuak obraren kontratazioa baimendu zuen.

Proiektua bideratua zegoela uste genuenean, 2024 urtean gauzak okertu dira. Hain zuzen ere, 2024ko martxoan 5 enpresek interesa azaldu bazuten ere, obraren lizitazioa hutsik gelditu zen.

Orain, obra baldintza hobegoetan lizitaziora atera beharrian, Europak administrazioari gastu sabaia finkatu diola eta, proiektua gelditu dute. Jada idatzia dagoen proiektuarekin aintzineratu jarraitu beharrian, proiektu berri eta murriztagoia idatzi behar dutela jakinarazi digute. Ondorioz, Baztan Bidasoa eskualdeko Lanbide Heziketa ikastetxe berriaren proiektua atzeratu egiten du, dagoen Hezkuntza eskaintza baldintzatzen du eta orohar etorkizuna arriskuan jartzen du.

Une honetan, EH Bilduk eta Gobernuak 2025eko aurrekontuen inguruko akordioa lortu dute, proiektu berria idaztearena alegia.

Eskualdearen garapen sozioekonomikorako ezinbertzeko proiektua da. 400 ikasle baino gehiago prestatzen ditu eskualdeko Lanbide Heziketak eta horiek bertako enpresetako etorkizuna dira. Etengabeko formakuntza Langabeen birziklapena eta lan mundura intserzioa eskainiz. Beraz, eskualdeko herrietako motorra eta demografian ere eragina duena da.

Lanbide Heziketa euskaraz ikastea bermatzen duen eskaintza ezinbestekoa da.

Une honetan, gure helburua lortzeko garrantzitsua da enpresen eta gizartearen atxikimendua jaso eta Nafarroako Gobernuari helaraztea.

7. AROZTEGIAKO AUZIPETUEI ELKARTASUNA ADIERAZI ETA ABSOLUZIOA ESKATZEKO MOZIOAREN ONESPENA.

Osoko bilkurara bertaraturako kideek AHO BATEZ ERABAKI DUTE ondorengo mozioa:

Aroztegiako Auzipetuei Elkartasuna Adierazi eta Absolutzioa Eskatzeko

Aroztegiako proiektuak, 340 biztanle inguru dituen Lekarozko herrian hotela, golf zelaia eta 228 luxuzko etxebizitza egitea planteatzen du. Baztango etxeen %36a etxe hutsak edo bigarren etxe bizitzak direla jakinik, hasieratik nabarmena izan da proiektu honen izaera espekulatzaila. Lekaroztarrek eta Baztandarrek behin eta berriz proiektu honen kontrako iritzia adierazi badute ere, Nafarroako Gobernuak UGEPa (Udalez Gaineko Eragina duen Plana) gisa onartuz proiektu hau inposatzen tematu da. Modu



ARANTZAKO UDALA

honetan, Nafarroako Gobernuak herritarren interesak defenditu beharrean, interes pribatu eta espekulatzailerak defenditu ditu, herritarrak inposizio honen aitzinean beren burua defenditzera behartuz.

Hondar urteetan, Aroztegia proiektuaren kontrako oposizioan parte hartu duten Baztandar herritar eta ordezkariak jazarpen judizial eta ekonomiko nabarmena pairatu dute. Proiektu honek pelotazo urbanistiko bat burutzea du helburu, eta Nafarroako Gobernuak UGEPa onartu izanak Baztango instituzioen eskumenak eta herritarren erabakitzeko gaitasuna urratu ditu.

Prozesu honetan, enpresa pribatu baten mesedetan, demokrazia eta herritarren borondatea alde batera utzi dira. Baztandarrek beren etorkizunaz erabakitzeko duten eskubidea urratu dute, herri eta nekazal lurak desjabetuz, baliabide naturalak kaltetuz, eta desegituraketa soziala zein hizkuntza eta kulturaren gainbehera eragingo lukeen proiektua bulkatuz. Hau Euskal Herrian historikoki eman den zapalkuntza eta inposizioaren bertze adibide nabarmena da, herri zapaldu eta okupatua garela berretsiz.

Horrez gain, 2021ean akanpada baten bidez Aroztegiko obrak geldiarazteko desobedientzia ekimena aitzin eramateagatik zazpi auzipetuek pairatzen duten egoera salatu nahi dugu: epaiketa izanen dute eta denera 20 urteko kartzela eta 56.000 euroko fidantza eskatu diete zigor gisa. Ez da zilegi eta ez da bidezkoa herritarrak eta ordezkariak kriminalizatzea denenak diren lurak eta baliabideak defendatzeagatik.

Horrenbertzez, udal honek honako hau erabakitzen du:

1. Elkartasuna adieraztea Aroztegiko obra gelditzeagatik auzipetutako zazpi herritarrei, eta beraien absolutzioa eskatzea.
2. Baztango herritarrek eta ordezkariak prozesu honetan jasan duten jazarpen judiziala eta ekonomikoa salatzea.
3. Herrien burujabetza eta erabakitzeko eskubidea aldarrikatzea, eta pelotazo urbanistiko eta inposizioen aitzinean Euskal Herriko herritarrek beren etorkizunaz erabakitzeko duten eskubidea defendatzea.
4. Otsailaren 1ean Iruñean eginen den manifestazio nazionalean Udal honen atxikimendua adieraztea, eta herritarrei bertan parte hartzeko deia egitea.
5. Nafarroako Gobernuari UGEPa gelditzeko eskatzea, bere erantzukizuna baita proiektua behin betirako gelditzea.

8. ALKATE EBAZPENAK.

2024ko 181etik 204ra eta 2025eko 1etik 7ra Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.

9. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 17:10ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.



ARANTZAKO UDALA

ALKATEA,

Ziurtatzen dut
IDAZKARIA,

Saturnino Larralde Ibarrola

Nagore Madariaga Iriarte